

horoskopoa

- A R I E S**
martxoak 21 - apirilak 20
Maitearekin haserretu egin al zara berriro? Zuek beti mokoka.
- T A U R U S**
apirilak 21 - maiatzak 20
Igandean estropadak, atzo Zarauzko euskal jaiak... Zu bai benetako euskalduna!
- G E M I N I**
maiatzak 21 - ekainak 20
Halakoren batean beharrak itoko zaitu. Deskantsatu egin behar duzu.
- C A N C E R**
ekainak 21 - uztailak 20
Ilea horiz tintatuta begirada askoren jabe egin zara. Herri honetan, izan ere...
- L E O**
uztailak 21 - abuztuak 23
Eguzkiak ez du zurekin gupidarik. Aldiro zuri-gorri bihurtzen zara.
- V I R G O**
abuztuak 24 - irailak 23
Zu ere Alardean oihuka ibili zirenetakoa zara, ezta? Buru karratu hori!
- L I B R A**
irailak 24 - urriak 23
Ligatzea ez da zure parekoaren kolokora barre egitea. Hori min egitea da.
- S C O R P I U S**
urriak 24 - azaroak 23
Aupa Orio! Aupa Donibaneko! Aupa San Pedro! Ze kristo, aupa Tiran, kauen zotzi!
- S A G I T T A R I U S**
azaroak 23 - abenduak 23
Katarro hori ez da berehalakoan sendatzen. Baja luzatzen ez zara ibiliko bada?
- C A P R I C O R N U S**
abenduak 24 - urtarrilak 20
Behe-behetik hartuko duzu gaur arnasa. Bai, irailako azterketak gaintitu dituzu.
- A Q U A R I U S**
urtarrilak 21 - otsailak 18
Cola-Caoari ezta eta azukrea botatzek ederki erakusten du nolakoa zaren.
- P I S C I S**
otsailak 19 - martxoak 20
Murphyren lege guztiak aurka joango zaizkizu gaur. Bihar beste egun bat izango da.

Uxue Agirre



Duela 60 urte
(Irailak 10, 1936)

EAJko kideak Madrilén

Jose Antonio Agirre, Francisco Basterretxea eta Arzelus EAJko kideak Madrilera joan ziren Espainiako Gobernuako kideekin euren eskakizunak negoziatzeko asmoz. Gobernuako kideek Agirre nahi zuten Herrilan ministro, baina Agirrek ez zuen onartu. Hala ere, euskal politikoko bat bertan egoteko posibilitateaz negoziatu zuten. Errepublikarrek euskal nazionalista bat nahi zuten Gobernuan, baina jeltkideek Espainiako Gobernuan parte hartzeko erabakia onartzen bazen, demokratikoki alderdi guztien artean aukeratutako pertsona bat izango zela azpimarratu zuten. Ez zen beharrezkoa EAJkoa izatea.

telebista - irratia

'ER' ('URGENCIAS') ETA 'FRASIER' TELESAIL ESTATUBATUARREK ESKURATU DUTE SARI NAGUSIA

Sorpresa gutxi Emmy sarietan

Emmy sariak banatu zituzten herenegun, telebistako lanei dagozkien sari entzutetsuenak. Telebistako Oscar sariak ere deitu izan zaie inoiz. Ez da sorpresa handirik izan aurten. Aurreikusi zen bezala, 'Er'-ek ('Urgencias') jaso du telesail dramatiko onenari dagozkion saria eta 'Frasier'-ek umorezkoari dagozkiona.

Erredakzioa / Donostia

BERO handia egin arren, jende andana hurreratu zen herenegun Kaliforniako Pasadena antzokiaren aurrera telebistako izarrak ikustera. Izan ere, Emmy Sarien 48. Jardunaldia egin zen, eta ohi bezala jende ospetsu ugari bildu zen bertan, eta guztiak ere dotore jantzita. Er-ek, (Espainiako Telebistan astelehenetan emititzen duten Urgencias-ek) jaso du telesail dramatikoari dagozkion saria eta Frasier-ek umorezko telesail onenari dagozkiona.

Er serieak joan den urtean ere sari bera lortuko zuelakoan izan ziren zenbait aditu, baina ez zuen irabazi, NYPD Blues (Policías de Nueva York) serieak eskuratu baitzuen.

Frasier-ek, oster, joan den urtean ere lortu zuen aurten irabazi duen sari bera. Zortzi urte daramatza Estatu Batuetako telebistan eta oraindik ere audientzia handia du.

Aktoreei emandako sarietan izan dira sorpresatxoak • Telesail komikoko gidoigile onenari dagozkion saria ere Frasier-eko idazle taldeak jaso du. Gaintzeko Emmy sariak, ordea, beste serie batzuen artean banatu dituzte. Gizonezko aktore komiko onenari dagozkion saria John

EMMY SARIAK	
Telesail dramatiko onena:	"Er" (Urgencias).
Umorezko telesail onena:	"Frasier".
Gizonezko aktore dramatiko onena:	Dennis Franz, "NYPD Blues"-en egindako lanagatik.
Gizonezko aktore komiko onena:	John Lithgow, "3rd rock from the sun"-en egindako lanagatik.
Emakumezko aktore dramatiko onena:	Kathy Baker, "Picket Fences"-en egindako lanagatik.
Emakumezko aktore komiko onena:	Helen Hunt, "Mad about you"-en egindako lanagatik.
Bigarren mailako gizonezko aktore dramatiko onena:	Ray Walston, "Picket Fences"-en egindako lanagatik.
Bigarren mailako gizonezko aktore komiko onena:	Rip Torn, "The Larry Sanders Show"-en egindako lanagatik.
Bigarren mailako emakumezko aktore dramatiko onena:	Tyne Daly, "Christy"-negindako lanagatik.
Bigarren mailako emakumezko aktore komiko onena:	Julia Louis-Dreyfuss, "Seinfeld".
Telefilme onena:	"Truman".
Miniserie onena:	"Gulliver's travel".
Miniserieko gizonezko aktore onena:	Alan Rickman, "Rasputin"-en egindako lanagatik.
Miniserieko emakumezko aktore onena:	Helen Mirren, "Prime Suspect"-en egindako lanagatik.
Telesail dramatiko gidoigile onena:	Darin Morgan, "The X files"-gatik.
Telesail komikoko gidoigile onena:	"Frasier" telesailko taldea.
Telesail dramatiko zuzendari onena:	Jeremy Kagan, "Chicago Hope"-n egindako lanagatik.
Telesail komikoko zuzendari onena:	Michael Lembeck, "Friends"-en egindako lanagatik.

Lithgowi eman diote 3rd rock from the moon-en egindako lanagatik. Gauzak horrela, Frasier-eko Kelsey Grammer, aurreko urteetako irabazlea, esku hutsik geratu da aurten. Gizonezko aktore dramatiko onenari dagozkion saria,

bestalde, Dennis Franzek irabazi du NYPD Blues-en egindako lanagatik. Zenbait adituren arabera, Er serieko Anthony Edwards eta George Clooney ziren sari horretarako faborito nagusiak. Beraz, sorpresatxo izan da horretan ere.

Emakumezko aktore dramatiko onenaren saria Kathy Bakerrek lortu du Picket Fences-en egindako lanagatik. Telesail bereko Ray Walstonek joan den urtean irabazi zuen aktore onenari dagozkiona.

Emakumezko aktore komiko onenari dagozkion saria Helen Hunti eman diote Mad about you-n egindako lanagatik. Twister filmeko protagonista ere bada Hunt. Aurten udan gehien ikusi den pelikuletako bat da hori.

Zuzendariei begira, oster, Michael Lembeckek jaso du telesail komikoen ataleko saria, Friends seriean egindako lanagatik. Jeremy Kaganek, berriz, telesail dramatikoaren ataleko irabazi du, Chicago Hope-n egindako lanagatik. x

Er-ek, (Espainiako Telebistan astelehenetan emititzen duten Urgencias-ek) jaso du telesail dramatikoari dagozkion saria eta Frasier-ek umorezko telesail onenari dagozkiona

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

BENETAKO kalitatea duten gauzei ez die eragiten ez denborak ezta espazioak ere. Are gehiago esango nuke. Haietaz berez duten hainbat kalitate nabarmendu eta hobetu egiten dira bi aldagai fisiko horiei esker. Telebista saioei buruz ari naiz, ez pertsonen gainean, baina hala ere giza eredu askorekin ilustratuko nituzke proposatutako aukerak. Gaurkoz pantailaren parajea aztertuko dut.

Larunbatean III Milenio programa ikusi nuen. Beti bezain sakon aukeratu zuten gaueko gaia. Naturaren indar efektisten lekuko harrizta izan nintzen ordubetez. Dokumentua bukatutakoan Luis Mendizabal kazetaria agertu zen. Saioaren ondorengo atalak aldaketarik gabe ikusiko genituela esan zuen. Ikusleok azken esaldi hori sinetsi ezinik gelditu ginen. Dirudenez, aurkezlea bera ere ez zen

Itxuraldaketa

esandakoaz asko fio, eta beraz, III Milenio-ren hurrengo atala ikusi arte itxaron beharko dugu Mendizabalen hitzen balioa neurtzeko.

Telebistako profesional eta estraprofesionalak etxean bezala dabilta. Hurbiltzen zaizkigun gurasoen eskua aurpegian sentitu arte, ezin izaten dugu jakin igurtzia edo belarrondoak emateko asmoarekin datorren bera. Mesfidantza arriskutsua. Baina guzti-guztiek ez dute patu berdina izaten pantailara iritsitakoan.

Laura Valenzuela, TVEko irudi historiko eta klasikoa, Espainiako kate publikora itzuli da. Tele 5era joan den Maria Teresa Campos eta honen alaba ordezkatzuz. Valenzuelak bere betiko nepotismoa erakutsi du berriz ere, eta

aldakatik josita daraman alaba Lararekin batera agertu da. Zorioneko izaten dira telebistan lanean diharduten oroimen efimeroak. Bai horixe. Campos eta honen alaba Terelu iltzatu eta harrika egiteko modukoak iruditzen zitzaizkigun orain arte. Hemendik aurrera faltan sentituko ditugu, Laura eta Lararen ausardiaren mugaren altura zabarra neurtu eta gero.

Telebistak exortzizatu eta santifikatu egiten ditu egunez egun sortzen dituen antikristoak. Oxala hain erraz beteko balira zuloak, ageri-agerian nabari dagoena lehenbailehen ikus dezagun. Baina horrek kontraesan handia dakar barnean. Eskerrak, espazioak eta denborak ez dieten eragiten benetako gauzei.

Ines Intxausti